Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

392

Martxoak 1, 2021

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Solas Jolas
4 Kale Dor Kayiko
5 Emakume ijito erreferenteak
6 Txingudiko espazio naturalak
7 Sutea
8 Kirolak: Espainiako Altletismo Txapelketa
9 Kirolak: Naroa Zubimendi eta Itxaso Goikoetxea
10 Iñaki Garrido
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Bidasoaldeko bitartekaritza zerbitzua
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako egoitzak

EGONALDI IRAUNKORRAK
ALDI BATERAKO EGONALDIAK
· FAMILIAREN ATSEDENERAKO
· ERREABILITAZIO, OPERAZIO ONDOKOAK
· GAIXONDOKOAK

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

Orain dela 100 urte “El Bidasoa” aldizkarian publikatutako artikuluek garai hartan albiste ziren gertaerak irudikatzen dituzte. 1921eko martxoaren 6an argitaratutako aldizkariaren lehen idatzian aspaldi Colón pasealekuko trenbide zubia argiztatzeko kale-argiak ipintzea adostu zela gogoratzen da, oraindik hiriko argiztapena hobetzeko lan horiek aurrera eraman ez badira ere. “Versos romanticos. Flores marchitas” liburua Yolé-k hainbat bertso erromantiko biltzen ditu. RE-LA-MI-DOk bere idatzian eskualdeko irakasleen soldata baxuak salatzen ditu bere idatzian. Jarraian, Txori Txikik “Ijitokeriak” testuan, euskaraz idatzitako testuan ijito familia baten istorioa kontatzen du.

Kirol kronikan txapelketa erregionalaren emaitzak laburbiltzeaz gainera, “Futbolerias” atalean semifinalen inguruko xehetasun guztiak ematen dira. “De Fuenterrabía” izenburuak aurreratzen duenez, aldizkariko hurrengo artikuluan Puntaleko zabaltza berria salerosteko aukera aztertzen da. “Charlas Femeninas” atalean emakumeek idatzitako testuak argitaratzen dira.

“Irún por dentro” titulua daraman idatzian Irungo kaleek behar dituzten berrikuntza lanak zerrendatzen ditu Juan de Uranzuk. Ondoren, Juan Mocorrea y Arrillagaren heriotza jakinarazten da, bere bizitza eta lorpenak laburbiltzen dituen artikulu batean. “En propia defensa” tituluan El Reporter Adolfo Bienabek aldizkariaren aurreko zenbakian argitaratutako idatziari erantzuten dio. Hurrengo idatzian “La fiesta del árbol” bezala ezagutzen den ospakizuna arratsalde horretan bertan ospatuko dela jakinarazten da, antolatuko diren ekitaldiak aipatzeaz gainera. Publizitatez betetako azken orrialdearen aurretik, zenbakia azken udal bilkurako erabakiak zerrendatzen amaitzen da.

ARGAZKIAK:

G41323: La Salle eskolako ikasle taldea 1910. urtearen inguruan ateratako argazkian.

G48940: Ganadu azoka Urdanibia plazan XX. mendearen hasieran.

G28371: Zuhaitzaren jaia Irunen.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
Joseba Arozena

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Martxoaren 12an amaitzen da 2021eko Solas-Jolas programan izena emateko epea

Irungo Udaleko Euskara Arloak 2021eko Solas Jolas programa aurkeztu du. Lehen txanda uztailaren 5ean hasi eta uztailaren 30ean amaituko da, bigarrena, berriz, abuztuaren 3tik 31ra bitartekoa izango da. Horrela, 2006. eta 2011. urteen artean jaiotako haurrek izango dute programan parte hartzeko aukera.

Miren Echeveste Euskara ordezkariak adierazi duenez, “Solas Jolas udalekuen helburua da euskararen erabilera sustatzea eta hizkuntzarekiko haurren jarrera hobetzea”. Euskara ordezkariak azaldu duenez ekimen honi esker, haurrek euskara modu naturalean eta entretenigarrian praktikatzeko aukera dute. Hala ere “osasun-egoera ezegonkorra denez, pandemiaren bilakaeraren arabera, unean uneko agintari eskudunek zehaztutako neurriak eta protokoloak aplikatuko dira, eta familiei jakinaraziko zaizkie”, argitu du Echevestek.

Solas Jolas programaren antolaketarako, hobebeharrez zenbait aldaketa egin dira aurten. Batetik, aurten ez da bigarren aukeraketa edo “errepeska” egingo. Hortaz gain, aurre-izenematea egitean ikastetxe bat edo bi aukeratu ahalko dira eta zozketan plaza lortuko ez dutenak ikastetxe bakoitzeko zain zerrendetara pasatuko dira. Gainera, haur guztiek ikastetxe guztietan parte hartzeko izango dute.

Aurtengo edizioko beste berrikuntza esanguratsuetako bat txandek hilabeteko iraupena izango dutela da. Bestetik, hilaren lehenengo lan egunean begiraleak bakarrik arituko dira, eta egun horretan gurasoek izango dute aukera ikastetxera joateko eta begiraleak ezagutzeko, 12:30etik 13:00etara, baina hortik aurrera hilabetea bukatu arte hartuko dute parte haurrek. Era bean, Euskara arlotik gogorarazi denez erabiliko den hizkuntza euskara da, beraz, haurrek euskara maila egokia izan beharko dute ahozko erabileran, ongi moldatu beharko dira bai hezitzailearekin eta baita bere taldekideekin ere.

Parte hartzeko aukerak

2021eko udan egitekoa den Solas Jolas programan 2011tik 2016ra jaiotako haurrek parte hartu ahalko dute, hau da, Haur Hezkuntzako 4 urtekoen gelatik Lehen Hezkuntzako 4. mailara bitartean daudenak. Hortaz gain, Irunen erroldatuta dauden edo, nahiz eta beste udalerri batekoak izan, Irunen ikasten ari diren haurrak izan beharko dira. Era berean, 2009an eta 2010ean jaiotako haurrak badira eta aipatutako mailetako batean badaude edota 5. edo 6. mailan egonda dibertsitate funtzionala duten haurrek Solas Jolas programaren edizio honetan parte hartzeko aukera izango dute.

Dibortziatuta edo legez bananduta dauden gurasoen seme-alaben kasuan, nahiz eta Irunen erroldatuta ez egon, uztaila edo abuztu osoan zaintza duen gurasoa Irunen erroldatuta baldin badago, zaintzapeko hilabetean parte hartzeko aukera izango dute. Horretarako epaitegiko sententzia edo ziurtagiria aurkeztu beharko du interesatuak.

Aurre-izenemate eta erreklamazio epea

Solas Jolas 2021 udalekuan parte hartzeko aurre-izenematea martxoaren 1etik 12ko 14:00ak arte egin beharko da. Aurre-izenematea egiteko bide ezberdinak daude: www.irun.org web orriaren bitartez, SACeko autozerbitzu terminaletan egunero 8:00etatik 22:00etara, edo 010/ 943 50 51 52 telefonora deituta astelehenetik ostiralera 8:00etatik 19:00etara.

Aurre-izenematea egitean, programan parte hartu nahi duen haurraren izen-abizenak, helbidea, posta elektronikoa, harremanetarako telefonoak, aukeratutako txanda (uztaila, abuztua edo biak), ikasten ari den ikastetxearen izena eta maila, Solas Jolaserako aukeratutako ikastetxea/ak eman beharko dira. Horretaz gain, haurrak dibertsitate funtzionala duen ala familiak DBE (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) kobratzen duen zehaztu beharko dute. Izan ere, DBE kobratzen duten familiei % 75eko deskontua egingo zaie prezioan. Zozketari begira, anai-arreben kasuan, besterik esan ezean, zozketan elkarrekin parte hartuko dutela ulertuko da.

Zozketa eta behin betiko izen-ematea

Zozketarako onartutakoen behin-behineko zerrenda www.irun.org webgunean jarriko da martxoaren 22an. Horretaz gain, 010/943 50 51 52 telefonora deituta ere kontsultatu ahal izango da. Zerrendak kontsultatzea garrantzitsua da eta akatsen bat izanez gero, horren berri ematea Euskara Arloari. Erreklamatzeko epea martxoaren 22tik 26ra izango da. Horren ondoren, martxoaren 31n zozketarako behin betiko zerrendak argitaratuko dira.

Plazak apirilaren 12an zozketatuko dira eta emaitzak egun horretan 15:00etatik aurrera argitaratuko dira. Irungo udalak plaza eskuratu dutenei posta elektroniko bat bidaliko die behin betiko izenematea egiteko beharko duten inskripzio-kodearekin eta erabili beharko duten loturarekin. Lotura horretan sartzeko Irun Txartela erabili beharko da.

Behin betiko izenematea Interneten bidez egin beharko da apirilaren 19tik 30era bitartean SAC24h zerbitzuaren bitartez (www.irun.org/sac), edo Autozerbitzu terminaletan (SAC Herritarra Atenditzeko Zerbitzua, Anaka eta Ventasko Kutxabank, Palmera Montero gunea) egunero 8:00etatik 22:00etara; apirilaren 30ean salbu, izan ere, egun horretan 14:00 arte egin ahalko baita.

Ikastetxe eskaintza zabala aukeran

Aurten uztailean Haur Hezkuntzarako eskainiko diren ikastetxeak hauek dira: Belaskoenea, Dunboa, Elatzeta, Lekaenea eta Toki Alai. Lehen hezkuntzan, aldiz, Belaskoenea, Dunboa, Eguzkitza BHI, Elatzeta eta Lekaeneaen artean aukeratu ahalko da. Abuztuan, berriz, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzarako Dunboa izango da eskainitako ikastetxe bakarra.

Prezioei dagokienez, Familia-unitateko kide bakoitzeko prezioa 72,85 eurokoa izango da haur eta hilabete bakoitzeko. Familia-unitateko 2 kide txanda berean apuntatuz gero 58,25 euro ordainduko dira haur eta hilabete bakoitzeko, 43,70 euro 3 kideren kasuan eta 29,10 euro 4 haur ego gehiagoren kasuan. Hortaz gain, DBEen onuradunak diren familiek 18,21 euro ordainduko dituzte haur eta hilabete bakoitzeko, kuota orokorraren % 75eko hobaria aitortuz.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Ijitoen onarpen eta errespetuan oinarritzen da Kale Dor Kayiko elkartearen lana

Kale Dor Kayiko elkarteak ijitoak gainerako herritarrak bezala, eskubide eta betebehar berdinekin bizi daitezela lortzeko helburuarekin lan egiten du. Horretarako, formazio akademikoaren garrantzia zabaldu, gizartean parte-hartzea sustatu eta balioetan oinarritutako heziketa lortzeko lan egiten dute elkarteko kideek. Elkartearen egoitzetako bat Irunen kokatu dago, Lope de Irigoien kaleko 27. zenbakian. Ainara Pina eta Palmira Dualek elkartearen proiektuak eta baloreak azaldu dituzte.

Nola sortu zen Kale Dor Kayiko elkartea?
Kale Dor Kayiko elkartea 1989. urtean sortu zen Bilbon, "Tio Manuel" izenaz ezaguna den ijito erreferentearen ekimenez. Sorreran elkartean hezkuntza arloak ijito familiak, ikasleak eta irakasleak laguntzeko asmoarekin sortu zen, arlo honen inguruan sortutako zailtasunen aurrean babesa emateko. Familia ijitoei haurrak eskolatzearen garrantziaz ohartarazteaz gainera, irakasleen artean ijitoen kultura eta ohiturak azaltzen lagundu zuen.

Irungo egoitza, berriz, noiz sortu zen?
Gipuzkoa eta Irunen, aldiz, elkartearen jarduera 2006. urtean hasi zen. Horrela, eskolako programarekin lanean hasi ginen. Hain zuzen ere, programa horretan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailarekin elkarlanean lan egiten dugu. Programak "Opre Roma" izena du, erromanieraz, ijitoen jatorrizko hizkuntzan, "eutsi goiari" edo antzeko esanahia duen esaldia. "Opre Roma" programak bi helburu nagusi ditu. Batetik, ijitoen eskola arrakasta ziurtatzea, hau da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua lortzea eta, horren ostean, bestelako ikasketekin jarraitzea, hala nola, erdi-mailako zikloak edo Batxilergoarekin. Kale Dor Kayiko elkartean garbi dugu egoera marjinaletik ateratzeko prestakuntza on bat izatea funtsezkoa dela. Hortaz gain, lan-arloko garapena eta inklusio soziala lortzeko modua dira.

Hirian jada zuen proiektuak ezagunak direla uste duzue?
Jada Irungo ikastetxe guztiek gure jarduera ezagutzen dutela uste dugu, gure proiektu guztiak partekatu eta haien berri ematen diegulako. Biztanleria orokorrari dagokionez, aldiz, ez dakigu hiritarrek zein puntutaraino ezagutzen dituzten Kale Dor Kayiko elkartetik bultzatzen ditugun ekimenak eta programak. Izan ere, 2006. urtean hiriko zenbait ikastetxeetan lanean hasi ginen, esaterako, Belaskoenea, Leka Enea, Dunboa, Hirubide edo orduan Santa Elena izenez ezagutzen zen institutuan. Hortaz, gure jardueraren zati garrantzitsu bat eskoletan egiten dugu eta COVID-19aren ondorioz, oraindik konplikatuagoa da bestelako jarduerak antolatzea edo bestelako elkarteekin elkarlanerako aukerak sortzea.

Elkartea lanean hasi zenetik ijitoen bazterketarekin amaitzeko gizartean aurrerapausorik ikusi duzue?
Bai, pixkanaka goaz, baina, azken urteetan zehar ijitoen bazterketarekin amaitzeko pausu garrantzitsuak eman direla uste dugu. Formazioari dagokionez, gero eta gehiago dira DBHko titulua lortzen duten ijitoak eta gehiago dira eskola joaten diren ijitoak, eskolara ez doazen ijitoekin alderatuta. Dena den, oraindik hezkuntzarekin loturik erronka polita daukagu aurretik, gure asmoa ijito guztiek tituluren bat lortzea baita. Azken finean, prestakuntza on bat lortzeko bide asko daude, baina, ezinbestekoa da etorkizunerako nolabaiteko formazioa izatea. Azken 40 urteetan lan mundua zeharo aldatu da eta ijito familiak ere pixkanaka aldaketaz ohartu dira eta haien seme-alaben formazioari garrantzi gehiago ematen hasi dira.

Integrazioa laguntzeko, oraindik gizartean aldatu beharrekorik ikusten duzue?
Bai, adibidez, egun lana aurkitzea oso konplikatuagoa da eta ijitoentzat oraindik gehiago. Izan ere, oraindik gizartean ijitoen inguruko aurreiritzi asko zabaldurik daude. Hortaz gain, ijito herria ezagutarazteko beharra ikusten dugu, onartua eta errespetatua izan dadin. Gutxiengo bat izanik, zaila da egoera honi buelta ematea eta gutxietsitako herria dela uste dugu. Ijitoak ulertzeko ijito herriaren jatorria eta baloreak ezagutzea ezinbesteko ikusten dugu. Horretarako, partaidetza ireki eta elkarbizitzaren garrantzia ulertzea funtsezkoa da.

"Opre Roma" programaren bitartez, ekola-errendimenduaz gainera, elkarbizitza sustatzen da?
Bai, halaxe da. Zentzu horretan, Berritzeguneak gure esku-hartzeak non behar diren jakinarazten digu eta beharren arabera gure ekarpena desberdina da. Batzuetan gela barruko laguntzak ematen ditugu irakasleekin batera, besteetan, berriz, banaketa tutoretzetan elkarrizketa motibagarriak eskaintzen ditugu, horretarako, ijito erreferenteen adibideak erabiliz. Era honetan, formazioarekin loturiko eredu ezberdinak erakutsiz ikasleen motibazioa handitzea errazagoa da. Gainera, bazkalosteko patioan jolasak antolatu ohi ditugu, eskolako errefortzua eskaintzen dugu, Bidelaguna programan parte hartzen dugu. Hortaz gain, familia eta ikastetxearen arteko bitartekari lana egiten dugu, seme-alabentzako helburua ikastetxearekin partekatu dezaten.

"Egoera marjinaletatik ateratzeko prestakuntza on bat izatea funtsezkoa da"

Palmira Dual, Kale Dor Kayiko elkarteko ordezkaria

"Azken urteetan ijitoen bazterketarekin amaitzeko pausu garrantzitsuak eman direla uste dugu"

Ainara Pina, Kale Dor Kayiko elkarteko ordezkaria

Hortaz gain, sustapenarekin loturiko proiektuak dauzkazue?
Sustapenarekin loturik erromanieraz "Karipen" izeneko programa dugu, ijito herriari protagonismoa eman eta ezagutarazteko. Euskaraz hitz horrek eroso egotea esan nahiko luke. Orokorrean, ijitoen kultura eta ohiturak zabaltzea da helburua, ipuin kontaketak, bideo proiekzioak antolatu eta horien inguruko gogoetak egiten ditugu, jokoak antolatu edo ijitoen historia laburbiltzen duen komiki baten bitartez. Adinaren arabera mota desberdinetako jarduerak antolatzen ditugu.

Formazioarekin loturiko material berezia eskaintze duzue?
Bai, batez ere, ijitoak ezagutzeko lagungarria dena. Formatu desberdinak baliatzen ditugu horretarako, hau da, marrazkiak, eskulanak, komikiak, CD interaktiboak, ... Horrela, gaiari protagonismoa ematea lortzen dugu.

Gainera, osasun arloarekin loturiko zerbitzuak eskaintzeko asmoa duzue?
Bai, hori da etorkizunera begira elkarteak duen erronka handienetako bat. Zentzu horretan, etorkizun batean bizi-estilo osasuntsua izatearen garrantziaz hitz egiteko kurtsoak antolatu nahiko genituzke, batez ere, gazteekin. Beraz, arlo hau tailerren bitartez landuko genuke.

Berdintasuna elkartearen oinarrizko balioetako bat da?
Berdintasunaren gaiari Kale Dor Kayiko elkartearen garrantzi handia ematen diogu. Izan ere, gizon zein emakumeek eskubide eta aukera berdinak izan ditzaketela erakutsi nahi dugu. Horrela, emakumeak etxetik atera eta lan bat aurkitzeko aukera izan dezaten. Horrela, emakumezkoek hartutako erabakiak babestu nahi ditugu, gizonengatik eta gizartean ulertuak izan daitezen.

Zeintzuk dira elkartetik aurreikusten dituzuen hurrengo ekintzak?
Etorkizun hurbilean pandemiarekin bizi beharko dugu, baina, argi dugu egoera horrek ez duela gure elkartearen jarduera oztopatuko. COVID-19aren ondorioz gure lana murriztu den arren, telefonoz, bideo-dei edo beharrezkoak diren baliabide guztiak erabiltzeko prest gaude gure zerbitzua eskaintzen jarraitzeko aukera izateko. Hortaz gain, bulegoan aurrez aurre egiten ditugun hitzorduetan segurtasun eta higiene neurri guztiak errespetatzen ditugu. Momentuz, taldeko dinamikak antolatzea ezinezkoa bada ere, gure esku dagoen lan guztia egiten jarraitzeko prest gaude. Gainera, hiriko ikastetxeetan hitzaldi asko hitzartuta dauzkagu. Etorkizunean, eskolatik kanpo elkartearen jarduera zabaltzea gustatuko litzaiguke, gure lana bizitzako beste esparru batzuetara zabaltzeko.

Etorkizunean ere elkartearen lana beharrezko izango dela uste duzue?
Bai, momentu honetan argi dago beharrezkoa dela gutxinaka urratsak ematen goazelako. Baliteke etorkizunean bazterketa soziala guztiz amaitzea eta ijitoak gizartean guztiz integratuta egotea, hori da gure nahia. Hau da, guztiok aukera berdinak izatea, guztizko lan eta gizarte inklusioa lortzea sekulakoa litzateke eta hori lortzeko aurretik oraindik erronka asko dauzkagu.

Emakume ijito erreferenteak etorkizuneko erronkei aurre egiteko

Sara Ferreruela, Irungo 38 urteko emakume ijitoa, beste emakume ijito batzuei ametsak betetzen eta berdintasunerako bidean aurrera egiteko laguntzen saiatzen ari da.

"Ezagutzea eta ez epaitzea", "Emakume ijitoak bideak irekitzen ari gara, oso garrantzitsua da familiaren eta gizartearen babesa izatea, gure aniztasun handia ezagutu eta aitortu behar baitu, ikustaraziz; gero eta indar handiagoz egiten dugu, etorkizun hobea sortzen dugu, soberan ditugu gaitasunak, baina, horretarako, azaleratzeko eta garatzeko aukera eman behar digute. Beharrezkoa da ezagutzea eta ez estereotipoak jarraituz epaitzea".

Esaldi horretan azpimarratzen du emakume ijito askori aukerak eman dakizkiekeela.

Sarak prestakuntzaren eta bere kulturaren sustapenaren aldeko apustua egiten du, gizarteratzeko bidean aurrera egiteko oinarri gisa.

Lehen Hezkuntzako etapa Gaztelu-Zahar ikastetxean egin zuen (Toki Alai LHI) eta bigarren hezkuntzako ikasketak Santa Elena institutuan egin zituen (gaur egun Eguzkitza BHI). Txikitan, besteei laguntzeko lan egitea zen bere ametsa, amaren laguntzarekin, eta hainbat zailtasun gaindituz, DBHko titulua lortu zuen.

Gero, zalantzak izan zituen ikasten jarraitzeari edo ez jarraitzeari buruz, eta, garai hartan hurbilen zituen pertsonei esker, Chelo amak, bidea ireki zionak, Olga amak, ikasketei eta haren etorkizunari buruzko gogoeta eginarazi zizkion. Santa Elena institutuko Elena izeneko irakasle batek, harengan sinistu eta zituen gaitasunak ikusarazi zizkion. Plaiaundi institutuan derrigorrezko ikasketak egiten jarraitzea erabaki zuen, lan-arloko kudeaketaren erdi-mailako gradu bat eginez, ondoren, beste adar batzuekin batera osatu zuena.

Geroago, bere familia osatzea erabaki zuen, eta, gaur egun, bi alaba ditu, eta haiei laguntzen die, eta ikastea eta etorkizunerako prestatzea nahi du. Gaur egun, lan egiten duen emakume-elkartearen beharrizanen arabera prestatzen jarraitzen du. Argi uzten du emakume ijitoa ijito familia baten oinarria dela, "bere herriko balioak, ohiturak eta kultura transmititzen dituena; azken hamarkadetan, emakume ijitoa bere komunitatea aldatzeko motorra bihurtu da, gizartearen eremu guztietan presentzia izatea nahi du, estereotipoak haustea eta berdintasunaren eremuan aurrera egitea". Baina, batez ere, Sara erreferentea da neska, gazte eta emakume ijito askorentzat. Erreferentziazko beste gazte eta emakume ijito batzuekin batera, ikastetxeetan jarduerak egiten ditu lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleak motibatzeko, eta arreta berezia jartzen du neska eta mutil ijitoengan, ikasten jarrai dezaten eta haien ametsak errealitate bihurtu ditzaten. Emakume ijitoak gizartean duen ikusgarritasuna ere aldarrikatzen du, eta beste emakume batzuekin batera hainbat jardueratan parte hartzen du, elkarreragin eta ahalduntze espazioak bilatuz, adibidez, martxoaren 8an, emakumearen egunean. Badaki zer aurrerapauso eman diren azken urteotan berdintasunerantz, baina, era berean, badaki oraindik bide luzea egiteko dagoela, lanean jarraitu behar dela eta guztion ardura dela hori lortzeko urratsak ematea.

Kale Dor Kayiko elkarteak idatzitako testua

Eusko Jaurlaritzak Txingudiko espazio naturalen konektagarritasuna hobetuko duela iragarri du

Eusko Jaurlaritzak San Lorentzo aintzira handituko duela iragarri du. Era beran, badiaren ingurunean dauden espazio naturalen konektagarritasuna hobetzeko konpromisoa iragarri du. Proiektuak 2,5 miloi euroko aurrekontua izango du. Lanek 9 hilabeteko egikaritze-epea izango dute eta obrak aurtengo bigarren seihilekoan hastea aurreikusten da.

Proiektua Txingudiko Erakundearteko Mahaian aurkeztu zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua buru duen mahaia osatzen duten Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Irun eta Hondarribiko udaletako eta Espainiako Gobernuko Kostaldeen lurralde-ordezkaritzako ordezkarien aurrean.

Proiektuaren oinarria da, batik bat, aintzira handitzea eta Mendelu eta Pierre Loti oinezkoen ibilbideak lotzea, Plaiaundiko atzealdetik. Hortaz, obraren zeregin nagusia lursaila egokitzeko aukera emango duen lur-mugimendua egitea da eta, bestetik, mareetara irekita dagoen aintzira konfiguratuko duen geometria osatzeko betelanak eta indusketa-lanak egitea. Lurzoruaren egokitzapena amaitu ondoren, bidegorri baten berezko urbanizazio-lanak egingo dira, zolatze-lanekin, fabrika-obrak egikaritzearekin, eta argiztapen- eta instalazio-sare berri batekin.

Jarduketa-esparruko zenbait puntutan pasabideak aurreikusten dira. Pasabide horietako lehenak Mendeluko ibilbidea eta esparrua bera konektatuko ditu, Mendelu erreka zeharkatuz. Pasabide horrez gain, esparruaren iparraldean beste bi pasabide egikarituko dira. Azkenik, landareztatzeko eta ingurumena lehengoratzeko lanak egingo dira. Lan horien bidez lortu nahi da lursailak baldintza egokiak izatea proiektu horren oinarri diren espezie migratzaileak erakartzeko. Horretarako, birsorkuntza ekologikoaren irizpideei jarraituko zaie, xedea baita Plaiaundiko marearen eragin-eremuaren jatorrizko ezaugarri botanikoak lehengoratzea.

Esparruaren zati bat itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren eta horren babes-zortasunaren barruan dago. Jarduketa-eremuaren ia %100a dago 10 urteko errepikatze-denboran urpean gera daitekeen zona batean. Plaiaundiko institutuaren atzealdea eraisteko 2019an egindako obraren emaitza da jarduketa-esparruaren egungo egoera. Obra horrek bidea eman zion proiektu honen mende dagoen obrari.

"Next Generation" proiektua

Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak zuzendu zuen Txingudiko Plan Zuzentzailearen Jarraipen Batzordearen bilera. Bertan EAEk Next Generation Europako funtsak eskuratzeko aurkeztu duen "Txingudi lehengoratzeko" ekimena azaldu zuen.

Euskadi Next Planean, Eusko Jaurlaritzak 27,4 milioi euro eskatu ditu gune hori lehengoratzeari behin betiko bultzada eman dakion. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak berak —bakarrik edo jarduketa-esparruan eskumenak dituzten administrazioekin lankidetzan— egikaritu ditzakeen proiektu zehatzak baliatuko ditu.

Txingudiko ingurunea erreferentziazko espazio natural gisa finka dadin lagunduko duten jarduketak dira. Esate baterako, Txingudiko estuarioetako ekosistemen konexioa hobetu nahi da, ibiltarientzako ibilbide fun- tzionalak eta seguruak, inguruari eta haren kudeaketari balioa ematen diotenak. Era beran, ibaiaren ertzak oinezkoen eta bizikleten ibilbideekin lotu nahi dira, trenbide- eta errepide-oztopoak gainditu eta hondartzatik hondartzarako mugikortasuna eta mugaz gaindiko beharrezko lotura ahalbidetzea.

Espaziorik sentikorrenetako bisita masiboak zaintzea beharrezkotzat jotzen da, bereziki, Bidasoko Uharteetan eta Plaiaundi inguruan, eta, horretarako, Osinbiribil ingurunean bisitak egin ahal izateko aukera eskaintzea planteatzen da, trantsizioko hiri-parke gisa duen bokazioarekin bat etorriz. Honekin batera, Txingudiko hezeguneak modu selektiboan handitzeko asmoa adierazi da: San Lorentzoko aintzira —Plaiaundiko institutuaren ondoko atzealdeko baratzeetarantz— eta Jaitzubiko ibarreko estuario-ekosistemak. Era berean, Plaiaundiko kirol-instalazioak beste kokaleku batera eraman ondoren, ur gezako aintzira handitzeko aukera aztertzen da. Bestetik, lurreko fauna txikiarentzako konektagarritasuna hobetze aldera, Jaizkibel mendiaren eta Jaitzubiko paduraren arteko korridore-azpiegituren azpiko pasabideen bidez eta Bidasoko estuarioan barrena egitea aurreikusten da. Azkenik, Txingudiko padurak hobetzearen alde lan egiten duten eragileen arteko lankidetza indartzea, administrazio-arloen arteko lankidetza bultzatuz, lankidetza publiko-pribatua sustatuz, mugaz gaindiko lankidetza bultzatuz eta Txingudiko ekosistemen zaintzaren kontzeptua garatu nahi da.

Paduren berezitasuna

Txingudiko paduren berezitasuna Bidasoko estuarioan dagoen 95.000 biztanleko konurbazio baten bihotzean egotean datza. Hendaia, Irun eta Hondarribiak osatzen dute konurbazio hori, eta padurak konurbazio horretako azpiegitura handien ondorioz zatikatuta daude. Gipuzkoan dagoen Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu bakarra da, eta puntu berezia da hegaztien migrazio-prozesuetan. Txingudiko padurak enklabe naturalizatu gisa nabarmentzen dira, eta erreferente bihurtu dira, bai ingurumen-balioengatik, bai inguru horretan bizi diren eta zona hori bisitatzen duten pertsonen bizi-kalitatean duten inplikazioarengatik. Gainera, Txingudi nazioartean garrantzia duen hezegunea da.

Suteak erraustsetan bihurtutako natur ingurunea

Otsaileko azkenaurreko asteburuan Nafarroa eta Gipuzkoa arteko mugan piztutako suteak alerta-egoeran mantendu zituen Bidasoa bailarako biztanleak. Sutea larunbat goizeko lehen orduan piztu zen eta hegoaldeko haize bolada bortitzek suaren zabalpena lagundu zuen. Guztira, 1.800 hektarea erre direla kalkulatzen da.

Baso-sutea larunbat goizeko 9:30etan, Berako Montoia edo Sarraila inguruan piztu bazen ere, hegoaldeko haize ufada bortizek suaren hedapena azkartu zuten, sutea Gipuzkoa eta Iparraldeko sutea zeharkatzea eraginez. Larunbat arratsaldeko lehen orduan Gipuzkoan sartu zen, zehazki, Endarlatsa ingurutik. Badaezpada, Irungo Bidasoa auzoko eta inguruko 38 baserri inguru, bi jatetxe eta enpresa bat hustu ziren.

Arkaitz Orbegozo Gipuzkoako Foru Aldundiko suhiltzaileen zerbitzu buruak azaldu duenez, sutearen inguruko lehen informazioa Nafarroatik iritsi zitzaien, Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko zerbitzuaren bitartez, suak Gipuzkoan sartzeko aukerak zituela abisatuz. "Era berean, Ertzainak eta Udaltzainak baserriak husten hasi zirela jakin genuenean, irizpideak eta helburuak bateratu eta koordinazio lana errazteko aginte-postua sortzeko beharra ikusi genuen", adierazi du Orbegozok. Horrela, Garberako zentraletik egoera aztertzen hasi ziren eta sutea itzaltzeko lanak koordinatzeko aginte-postu mugikorra Irungo Zaisa industriagunean ezarri zen. Era honetan, larrialdiaren nondik norakoak kontrolatu ahal izan ziren, larunbat arratsalderako helburuak eta irizpideak argitu eta igandera arte, 24 ordu baino gehiagoz lan egin zen.

Foku nagusiak Endarlatsa inguruan kokatu ziren, larunbatean iparralderantz egin zuten, Bidasoa ibaiaren ezker bazterretik, eta igandean ipar-mendebalderantz, Erlaitz eta Pagogaña aldera, Aiako Harrien mendebaldeko lurretan. Igande arratsaldean gertatutako haizearen aldaketaren ondorioz sutea gehiago zabaldu zen, foku nagusiak Endarlatsa eta Erlaitz arten kokatu zirelarik. Espero bezala, igandeko arratsalde-gau partean emandako giroaren aldaketak eta euriaren iritsiera funtsezkoak izan ziren sutea kontrolpean jarri eta gauerdirako sua itzali zen.

Aurkako faktoreak

Klimatologia eta orografiak ez zuten suaren itzalketa lagundu. Baso-sute bat izanda erregaiaren egoerak, hau da, sasi eta mendiko beste elementuen egoerak guztiz baldintzatzen du sutearen garapena. Azken hilabetea oso euritsua izan bada ere, azke hiru egunetako hego-haizeak erregaia guztiz lehortu zuen. Hortaz gain, abenduko ziklogenesiaren ondorioz zuhaitz asko erori ziren eta, baso-lanak egin ziren arren, mendian orain-dik adar eta zuhaitz erori asko gelditzen dira, hego-haizearen laguntzarekin sutearen aurreko egunetan asko lehortu zirenak. Gainera, asteburuan izandako 20 gradutik gorako tenperaturek eta 60-80 km/h-ko haize ufadek sutearen garapena guztiz baldintzatu zuten.

Bestetik, topografiak ere ez da oso lagungarria, zonalde guzti hori oso menditsua da eta. Malda handiek eta erregai lehorraren eraginez, sua azkarrago hedatu zen Arkaitz Orbegozo suhiltzaileen zerbitzu buruak azaldu zuenez. Hortaz, bi faktore horiek elkartuta sutea zabaltzeko egoera perfektua eman zen.

Koordinazioa itzalketa laguntzeko gakoa

Behin behineko balantzeen arabera, sutean 1.800 hektarea erre dira, horietatik 400 hektarea Gipuzkoako lurrak dira. Aiako Harriak parke naturalean kalte garrantzitsuak eragin ditu eta azken hamar urtetako suterik larriena izan dela adierazi dute agintariek. Gipuzkoako Foru Aldundiak 40 lagunetik gora eta dozena bat ibilgailu izan ditu asteburu osoan zehar tokian momentu oro, suhiltzaile eta basozainen artean. Hauekin batera, Ertzaintza, Babes Zibila, Irungo Udaltzaingoa, DYA Gipuzkoa eta Gurutze Gorriak ere hartu dute parte suaren kontrako ahaleginean.

Suhiltzaileen kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Suhiltzaileen foru zerbitzuak Bidasoa (Irun), Kosta (Zarautz) eta Korostiko (Legazpi) parkeko baliabideak mobilizatu zituen. Hortaz gain, Beran hasitako suteak, Gipuzkoa eta Lapurdira salto egin zuenez mugaz-gaindiko izaera hartu zuen arazoak. Arkaitz Orbegozok azaldu duenez lurralde desberdinetako profesionalen elkarlana ezinbestekoa izan zen suteari aurre egin ahal izateko. Izan ere, Gipuzkoako suhiltzaile zerbitzuko buruak gogoratu duenez, Europa mailako POCTEFA programaren barruan kokatzen den akordio bati esker Nafarroa, Iparralde eta Aragoiko suhiltzaileekin elkarlanean aritzeko erraztasun gehiago dauzkate orain. Akordio horri esker suhiltzaile talde ezberdinen koordinazioa erabatekoa izan zen hasieratik. Horrela, Gipuzkoa eta Nafarroako suhiltzaileek baliabide material eta pertsonalak elkarbanatu zituzten eta Iparraldeko suhiltzaileak aginte postura gerturatu ziren egoeraren berri izateko.

Behin sutea guztiz itzali ostean, suteak eragindako kalteak neurtzea tokatzen da. Zentzu horretan, Arkaitz Orbegozo Gipuzkoako suhiltzaileen buruak gogoratu duenez, egiteko hori jaurlaritzako Mendi eta Eremu Naturalen arloari dagokio eta bertako teknikariak izango dira sutearen ondoriok neurtuko dituztenak. Suhiltzaileak, aldiz, babes zibila eta sutearen koordinazio lanaz arduratzen dira, hortaz, Orbegozo Gipuzkoako suhiltzaile buruak adierazi duenez sutean lan egin zuten agintari eta langileekin beharrezko dokumentazioa osatzen ari dira. Lan honi esker etorkizunean gerta daitezkeen suteetan hobetu beharreko gauzak identifikatuko dira, profesionalen koordinazio eta funtzionamendua hobetzea ahalbidetuko dutenak.

Bidasoa Altetiko Taldea zapore gazi-gozoarekin itzuli da Espainiako Txapelketa Absolututik

Otsaileko azkenaurreko asteburuan Bidasoa Atletiko Taldeko kirolariek Madrileko Gallur pistan jokatutako Atletismo Txapelketa Absolutuan parte hartu zuten. Estatu mailako pista estaliko hitzordu garrantzitsuenean Bidasoako 5 kirolarik parte hartu zuten.

Galluren jokatutako Atletismo Txapelketa Absolutuan BATeko kirolariek lortutako emaitza aipagarriena María del Mar Joverek luzera jauzian lortutakoa izan zen, izan ere, 4. postua lortu zuen. Txapelketa denboraldiko bere marka onena berdinduz hasi zuen, ondoren 6.20 metroko jauzi hobe bat egin zuelarik. Bigarren salto honi esker txapelketan laugarren postua lortu zuen, domina eskuratzeko 5cm falta izan zitzaizkiolarik.

Iker Arotzenak erakutsi zuen aurreko asteburuan gertatutakoa ez zela kasualitatea izan, atleta gazteak maila handiko lehiaketa bat egin zuen, jauzi guztietan 7 metroko muga gaindituz, eta Ikerrek 7,43m-ko erregistro hobea ezarri zuen, txapelketako 5 postua eman ziona.

Miriam Gregorik bederatzigarren postua eskuratu zuen. Miriamek 800m-ko lehen finalerdian korrika egin zuen, non 5. postuan amaitu zuen 2.11.54ko markarekin, finalerako txartela segundo batera geratuz. Miriamek eta Tonik bere entrenatzaileak ontzat eman zuten pista estalian lortutako emaitza.

Sara Villasante elitera itzuli zen urte luzez lesionatuta egon ondoren eta gogoz itzultzen dela erakutsi zuen. Sarak 1500 metroko lasterketan lehiatu zen, non ezin izan zuen finalera pasa lasterketa motel eta estrategiko batean, ia azken 400 metroetan korrika egin baitzuen. Hamalaugarren postuan amaitu zuen 4.48.67ko denborarekin.

Deskalifikazioaren zapore garratza

Teresa Errandonearen deskalifikazioak txapelketa absolutuan Bidasoa atletiko taldeak lortutako emaitzak ilundu zituen. 60 metro hesidunetako kategoriako finalaurrekoan irteera baliogabea zela kontsideratu zen, atleta irundarrak egindako irteeran epailearen tirora aurreratu ez bazen ere. Irteera baliogabe gisa hartu zen takoen sentsoreak 0.093 milesimatako erreakzio-denbora hartu baitzuen eta baimendutako denboraren muga 0.100 milesimatan dagoela argudiatuz.

Gertakariaren ostean Teresa Errandoneak argitaratutako komunikatuan atleta irundarrak adierazi duenez, Karlsruheko kontzentrazioan bere kirol ibilbideko lehen marka nulua lortu zuela adierazi du eta gertakari honek bere hurrengo emaitzetan mesfidantza eragin zien. Errandoneak komunikatuan azaltzen duenez, “epaileen arabera takoaren presioa handitzeak eragin du nire erreakzio-denbora baimendutako mugaren azpitik egotea”. Horrekin batera, atleta irundarrak orain dela 50 urte finkatutako 0.100-eko muga agian zaharkituta gelditu delaren inguruko eztabaida planteatu du, azkenaldian arrazoi berarengatik deskalifikazioek era nabarmenean gora egin dutela ikusi ostean.

Gertakari honen aurrean epaileek ez zuten klubak aurkeztutako erreklamazioa entzun nahi izan, irteerako bideoa berrikusi zezaten. Bidasoa Aletiko Taldetik adierazi dutenez, 0.093 milesimetako takoen presioa lekutik mugitu gabe egindako mugimenduen ondorioa izan daiteke eta, horrela izatekotan, abisua izango litzateke bakarrik, ez deskalifikazio zuzena. Kanporaketaren ondorioz, Errandoneak txapelketa absolutuan marka on bat lortu eta urrezko domina nazionalarengatik borrokatzeko aukera galdu zuen.

Atletismo Aste Santuan

Bidasoa Atletiko Taldeak, Super Amararekin eta Irungo Udalarekin elkarlanean, Aste Santurako jarduerak abiatu ditu, haur eta gazteentzako kirol-zerbitzuak eskaintzeko. 2016ko haurrei zuzendutako ikastaroak dira, jarduera fisiko bat egiten den aldi berean haurrek Aste Santuko oporrez disfrutatzea da helburua. Honela, lagunarteko harremanak sustatu eta edozein kirol motako hain beharrezkoa den koordinazioa lantzen da. Ikastaroak Aste Santuko bi asteetan zehar egingo dira.

COVID-19aren zabalpena ekiditeko segurtasun-araueta-ra egokitzeko, janaria bertan egiteko aukera kendu da. Zehazki, bi dira eskainitako aukerak. Batetik, 8:30etatik 13:30era; bigarren aukera 14:30ak arte izango da, pistako aparteko hamaiketako txiki batekin. Garrantzitsua da seme-alabek elikadura-intolerantzia edo alergia edo beste arazo medikoren bat eudkiko balu, aurretiaz erakundeari jakinaraztea.

Kirol egitasmoan 2016tik aurrera jaiotako haurrek parte hartu ahalko dute. Ekintza guztiak Plaiaundiko atletismo pistetan egingo dira eta antolatutako ekintza eta jolas guztiak segurtasun-arauak betetzeko egokituak izan dira. Jarduera euskara eta gaztelaniaz eskainiko dira eta atletismoa, askotariko jolasak eta gymkanetan parte hartuko dute haurrek, besteak beste.

Aukeran dauden asteak, martxoaren 29tik apirilaren 2ra eta apirilaren 5etik apirilaren 9ra doazenak dira. Egun horietan guztietan ekintzak egingo dira, jai egunak barne. Aste bat ordutegi laburrarekin aukeratuz gero 85 euroko prezioa izango du eta bigarren ordutegiak, aldiz, 100 euroko prezioa. Era berean, %10eko deskontua izango dute ekintza 2 anai-arreba edo gehiago inskribatzen dituzten, klubeko bazkideak diren edo aurten atletismo eskolako ikasleak direnentzako. Hortaz gain, aste bakarra kontratatuz gero prezioa normala izango da, baina, bi aste kontratatzeak %15eko deskontua izango du.

Haurrak ekintzan apuntatzeko bide ezberdinak daude. Batetik, inprimakia deskargatu eta taldearen bulegoan entregatu edo zuzenean inprimakia webgunearen bitartez betetzea. Plaza mugatuak dira eta izena-emate hurrenkeraren arabera beteko dira.

Naroa Zubimendik eta Itxaso Goikoetxeak zilarrezko domina lortu dute Espainiako Distantzia Luzeko Txapelketan

Santiagotarrak Kirol Elkarteko banku mugikorreko arraun-taldeak otsailaren 20an Castrelo do Miñoko urtegian jokatutako Distantzia Luzeko Espainiako Txapelketan parte hartu zuen. Klubeko emakumezkoen txalupa guztiek euren kategorietan podiumera igotzea lortu zuten bost domina lortu ziren, zilarrezko hiru eta brontzezko bi irabazi ostean. Naroa Zubimendik eta Itxaso Goikoetxeak zilarrezko domina lortu zuten jubenil kategorian.

Castrelo do Miñoko txapelketan gutxigatik ez zenuten urrezko domina irabazi, ezta?

Naroa: Bai, oso pozik gaude txapelketan lortutako emaitzekin. Azkenean biok oso gutxi entrenatu dugu eta lehenengo estropada izan dela kontutan izanda, oso pozik gaude txapelketan bigarren postua lortu genuelako, irabazleek tarte txikia atera ziguten bitartean.

Denbora gutxi daramazue elkarrekin arraun egiten?

Itxaso: Aurten hasi gara elkarrekin arraun egiten. Irailean Naroa Europako Txapelketatik itzuli zen eta ni bertan arraunean nenbilen, beraz, azarotik gutxi gorabehera elkarrekin entrenatu dugu.

Momentuko egoera kontutan hartuta, honelako emaitzarik lortzea espero zenuten?

Naroa: Ez dut uste espero genuenik, azken finean, ezinezkoa da txapelketaren aurretik zein postu lortuko duzun guztiz imajinatzea. Hau da, beti %100a emateko asmoz joango zara eta, ahal izanez gero irabaztera, baina, beti ahal den guztia lortzeko intentzioarekin.

Distantzia luzeko txapelketak prestakuntza desberdina eskatzen du beste txapelketa motekin alderatuta?

Itxaso: Bai, normalean 2.000 metroko luzera izan ohi dute gainontzeko txapelketek. Distantzia luzeko txapelketek, 6.000 metrokoek, maila altuagoa eskatzen dute eta exijentzia aldaketa nabaritzen dugu.

Nola lortu zenuten zuen errendimendua zaintzea eta urrezko domina eskuratzetik hain hurbil ibiltzea?

Naroa: Horrelako estropada baten atzean faktore asko daude eta zaila da imajinatzea urrezko domina lortzetik denbora tarte oso txikira geldituko zarela. Izan ere, modu batera edo bestera biratzeak edo haize bolada batek txapelketako azken emaitza guztiz baldintzatu dezake.

Aurretik bestelako txapelketarik izan gabe, erraza da Espainia mailako txapelketa batean lehiatzea?

Itxaso: Hemen inguruan txapelketarik egingo ez zela argi eta garbi zegoen. Gure entrenatzaileak antola zitekeen edozein txapelketan parte hartuko genuela esan zigun eta horretarako ahalik eta hobeto prestatu behar ginela. Horren ostean, Espainiako Txapelketa antolatu behar zela jakin genuen. Gipuzkoa, Euskadi eta Ligako bestelako txapelketarik egin ez denez, arraroa izan da denboraldiko lehen lehiaketa Espainia mailakoa izatea.

Nolakoa da txapelketa data finkorik gabe asko entrenatzea?

Naroa: Bai, asteko zazpi egunetan zehar entrenamenduak dauzkagu, nahiz eta txapelketa bakarra prestatu. Egoerari aurre egiteko moldatzen ari galera uste dut, baina, txapelketa gehiago izatea nahiko genuke egindako lan guztia erakusteko.

Jubenil mailan lehiatzen zaretenez, nola moldatzen zarete denbora kudeatzeko?

Itxaso: Guretzako ikasketak ere garrantzitsuak dira. Klasean zortzi edo bederatzi ordu eman ostean, eskolako lanak egin, entrenatu eta lotara joan ostean, berriro hasieratik hasten gara. Horrelakoa da gure bizitza asteko ia egun guztietan. Batzuetan gogorra da, baina, buruan helburu batzuk dauzkazunean, nahi izanez gero dena lortu daiteke.

Zein helbururekin prestatzen ari zarete Orioko hurrengo txapelketa?

Naroa: Hurrengo txapelketa martxoaren 7koa izango da eta ahal dugun guztia emango dugu bertan. Gainera, lau aste barru beste txapelketa garrantzitsu bat izango dugu eta bigarren txapelketa hori prestatzeko baliagarria izango dela uste dugu.

Zuen esperientziaren arabera, kirol mundura geroz eta emakume gehiago hurbiltzen direla nabaritu duzue?

Itxaso: Bai, gure azken txapelketan Santiagotarrak klubeko neska-mutilek parte hartu genuen eta guztiok lan ederra egin genuen. Emaitzek erakutsi zutenez, klubak neska talde sendo eta indartsua du. Ondo konpontzen gara eta diziplinaz lan egiteko gai garela erakutsi dugu. Gogoz lan egiten dugunez, pixkanaka emakumeek lortutako emaitzak hobetuz doaz eta gero eta gehiago dira kirola praktikatzera animatzen diren neskak. Horrela, umeek kategoria absolutuetan lehiatzen diren emakumeen erreferente gehiago dauzkate.

Lortutako emaitzak egindako lanaren erakusleak dira, ezta?

Naroa: Bai, halaxe da. Egunero entrenatzen dugu konstantzia hori mantentzeko eta Castrelo do Miñon lortutako maila erakutsi ahal izan dugu.

Iñaki Garrido Yerobi Heraldika eta Genealogiako Madrilgo Errege Akademiako lehen kide irundarra da

2021eko urtarrilean Iñaki Garrido Yerobi Heraldika eta Genealogiako Madrilgo Errege Akademian kide gisa sartzea lortu zuen. Kide izateko "Nafarroako Erresumako nobleziaren merezimenduak (XIV.-XIX. mendeetan)" lana aurkeztu zuen, ostean, Ramiro de Iturraldek babestutako liburu batean argitaratu dena. Egun Baskoniako Ikerketa Historiko eta Genealogikoen Fundazioaren sorreran parte hartzen ari da.

Duela gutxi Heraldika eta Genealogiako Madrileko Errege Akademiako kide bezala onartua izan zara. Berri pozgarria izango da zuretzat?
Bai, gainera akademian sartzen den lehenengo irundarra izanda oraindik gehiago. Berri pozgarria da eta historiagile batentzat oraindik gehiago.

Akademian sartzeko tesina aurkeztu duzu. Zeri buruzko lana egin duzu?
Eserlekua hartu ahal izateko ikerketa lan bat aurkeztu behar da. Behin argitaratuta lana defendatzea tokatzen da, hogei minutuko ekitaldia da eta ziurrenik ekaina edo uztaileko hilabetean egingo dena. Berez liburua eta lana jada eginak daude.

Lana amaituta, erraza izan da liburua formatuan argitaratzea?
Ikerketak egiterakoan, behin ideia guztiak buruan izanda, zailena ideia guzti horiek paperean islatzea da. Gainera, gai berezi eta askorentzat ezezaguna denez, oraindik konplikatuagoa da. Kontuan izan lanak bi metro zabaleko zuhaitz genealogikoa daramala, eta hori paperean egitea bere zailtasunak ditu.

Nondik datorkizu gai honekiko zaletasuna?
Gaztea nintzenetik. Hamalau edo hamasei urte nituenetik familiako kontuak, leinuak eta memoria historikoa berreskuratzeko interesa izan dut, ondorioz, nire ikasketak historia arlora bideratzea erabaki nuen, gai horien inguruan lan egiteko.

Irundarra jaiotzez, baino, lanak Nafarroarekiko lotura estua erakusten du?
Txikitatik udarak Garesen pasatzen nituen eta Nafarroa ezagutu eta disfrutatzeko aukera izan nuen bertan. Ondoren, Iruñean lan egin eta orain doktoretza amaitzen ari naiz bertan. Beraz, bai, harreman oso estua izan dut.

"Gai ezezaguna da eta orain arte Nafarroan egin gabeko kontua zen"

Ikerketan Nafarroako noblezia tituluak ikertu dituzu. Zeintzuk dira ikerketako ondorio nagusiak?
Ikerketaren bitartez XIV. mendetik XIX. mendera arte Nafarroako Erreinuaren barnean sortutako tituluak zeintzuk izan ziren finkatu dut. Nafarroako Foruak Eraldatzeko Legearen ostean, Nafarroak Erresuma titulua galdu zuen eta Espainiako beste probintzi baten an- tzera funtzionatu zuen hortik aurrera. Berez, 115 titulu dira, 1365. urtetik hasita. Ikerketan Nafarroako titulu guzti hauek nola eta zergatik sortu ziren aztertzen da. Hortaz gain, bibliografia moduan, gaiaren inguruan egindako lanak ikertzen dira. Era berean, gaiaren inguruan egindako tranpak ere ikertu ditut eta 115 tituluen katalogo osoa argitaratu dut. Lanaren beste emaitza interesgarri bat 2 metroko zabalera duen zuhaitz genealogikoa gehitzen da. Zentzu horretan, oso pozik nago argitaratutako lanarekin.

Erraza izan da ikerketa osatzeko informazio guztia biltzea?
Bi urteko lana izan da. Aspalditik burutu nahi nuen lana izan da eta Madrileko akademian sartzeko gai aukeratu behar izan nuenean, gai hau lantzea erabaki nuen. Gainera, gai ezezaguna da eta orain arte Nafarroan egin gabeko kontua zen. Zailtasun nagusiak kronologia eta horren barnean sartu beharreko tituluak argitzea izan dira.

Azken finean, gertakari historikoak ulertzeko modu bat dira?
Bai, ezinbesteko modua. Familia boteretsuen erakusleak dira, beraz, noblezia tituluak gizartea irudikatzeko modua dira, Nafarroako historiaren arlo bat ulertu ahal izateko.

Noblezia tituluek garrantzia galdu dute egun?
Bai, egun garrantzi hori erabat galduta dago. Titulu horiek hor jarraitzen dute, batzuk ezagunak dira, beste batzuk ez. Egun alboan duke edo markes bat izan dezakegu konturatu gabe, garrantzirik ematen ez zaiolako. Lekuaren arabera garrantzia erlatiboa da, Madrilen, esaterako, noblezia tituluren bat duen pertsona bat hiltzen denean, eskelan tituluak aipatzen dira.

Nolako interesa piztu dute ikerketaren emaitzek?
Jendeak gaiarekiko interesa erakutsi du, kontu ezezagunak direnez, gizartean nobleziaren inguruko klixe orokor batzuk zabaldurik daude eta jendeak gaiarekiko ezjakintasun handia du. Askotan horrelako titulu bat izateak atzetik dauzkan betebeharren inguruan ezer gutxi daki jendeak. Azken finean, familia kontuak dira eta badira arrazoi ideologikoengatik tituluak ukatzen dituzten pertsonak.

Noblezia tituluekin loturik, Irungo hiriarekin loturiko adibiderik bururatzen zaizu?
Bai, badira zenbait adibide. Amerikan sortutako Valle de Santiago markes titulua Berrotaran familiarena da. Bestetik, Irunekin oso lotuta dagoen beste titulu bat Murilloko markesatua da. Jatorriz nafarrak dira, baina, XIX. mendean Irunera bizitzera etorri ziren. Nicolas Gerendiain errepublikanoaren abizena nahiko ezaguna da, Murillo el Cuende markesaren semea eta XX. mendearen erdialderaino titulua mantendu zen. Titulua galdu ostean, beharrezko zergak ordainduz berriro berreskuratu zen. Markesa hil zenean, familia errepublikanoa zenez semeek ez zuten tituluaz ezer jakin nahi eta familiako bete kide batzuei pasa zen titulia.

Beste ikerketaren bat hasteko gairik bururatu zaizu?
Bai, gai asko daude eta proiektu guztiz ezberdinak dira. Azaroan Bortziriko nobiliarioa argitaratu genuen. Gure ideia, ahal den neurrian, Baztanen ere horrelako proiektu bat aurrera eramatea da. Azkenean, proiektu interesgarri asko daude, gure arbasoak ezagutu eta hemengo gizarte sistema nolakoa zen ezagutzea ahalbidetzen duena, beraz, beharrezko ikerketak dira.

Nafarroako Enrique III.ren armarriak (Frantziako IV.na) Javier Timmermans de Palmak Villapuente de la Peñako markesak utzitako irudia.

BELASKOENEA LH3

BELASKOENEAN URTAROAK LANTZEN (3.MAILA)

Denbora-pasak

7 hitz: Barazkiak

H	J	B	B	L	P	T	Z	A	Z	Q	M	G	R
R	Z	N	K	K	I	O	U	V	K	M	Q	W	T
Q	A	Y	P	T	P	R	G	B	N	Y	K	Y	H
I	E	Y	F	Y	E	U	Z	H	G	O	A	R	R
B	X	R	U	U	R	L	B	I	E	F	Z	X	C
Q	A	D	R	I	S	E	R	F	H	I	A	R	H
O	T	R	O	E	D	K	Q	S	H	V	L	J	G
L	X	M	A	L	M	A	T	O	M	O	O	Z	G
Z	X	P	U	T	H	O	Z	E	W	K	R	S	O
U	O	D	V	A	X	P	L	P	P	Y	E	G	W
P	C	H	J	Y	Z	U	O	A	M	L	G	P	R
G	K	N	F	Z	T	W	R	R	T	E	T	H	L
G	P	V	E	R	K	M	E	I	R	X	Q	O	X
A	Z	E	N	A	R	I	O	L	C	U	A	I	N

Azenario, piper, azalore, baratxuri, leka, erremolatxa, porru

				3				
7			1					9
5	9		4			1		8
3		9		6	1			5
					2	6		4
6		2	5			9		3
	7			4	5			
2	3	4		1				
							7	

SOKA JOLAS

Doinua: Asteburu aldera
Egilea: Aitor Errazkin Vicente

1) Haurrak itzuli izan
zaizkigu jostari (biz.)
eskolan soka bana
jasota opari.
Wifi-aren garaian
nahikoa mirari!
Meritua zor zaio
eman zien hari:
Mertxe, autobuseko
begiraleari.

2) Sokak metro inguru,
komeni neurrira (biz.)
bi muturrak elkarri
lotu eta tira;
barrutik esku biak
sartu ahala, di-da,
ia aldi berean
ipiniko dira
ahurrak eta haurrak
elkarri begira.

3) "Piramidea", "zerra",
"sehaska", "erratza"... (biz.)
Guztiak eraikitzen
ez dago erraza...
ez bazara bat ere
sortzeko kapaza
jausiko zaizu esku
artera mataza...
berritik hasi eta
baietz ongi pasa!

4) Bakarrik ezin bada,
bikoteka ekin (biz.)
bi eskurekin baino
hobeto laurekin
guztia marra zuzen
plegu eta erpin
"lehenik zu nirekin
gero ni zurekin"
dena errazagoa
baita elkarrekin.

5) Laguntzak ez du inoiz
umerik eskasten (biz.)
baizik eta lagundu
elkarrekin hazten
jolas honekin ere
zenbat irakaspen!
hariekin mundua(k)
airean marrazten
elkarren hatzen beha
elkarri ikasten.

6) Ez da zertan jostatu
haurrek haina ordu (biz.)
ohartzeko badela
ume haina modu
irudimenak muga
eza du lurzoru
beraz, hegan bagoaz
denak balio du...
Jolasari araua
topatu diogu!

7) Beraz, ari zintezke
sobera arreta (biz.)
jarri gabe ere zer
sortuko, zer gerta ...
Mugimendu arauei
horrenbeste buelta
eman gabe hariak
ezker-eskuin tenka!
zuk nahi duzun huraxe
izango da eta.

8) Horrelako jolasek
badute ahalmena (biz.)
indartzeko sormena
eta mintzamena.
Umea gai denean
kontatzeko dena,
ikusten dena eta
ikusten ez dena
bai al dakigu horrek
balio duena?

9) Memoria ordea
erdi oporretan (biz.)
sumatu izan zaie
batzu-batzuetan
batez ere ostiral
arratsaldeetan
autobusetik jaitsi
izan direnetan
txamarra ahaztu baina
soka eskuetan.

10) Zenbatsu belaunaldi
ez ote gara-ba, (biz.)
jolas berberarekin
dibertitu jada?
Eta bikaina dela
agerikoa da,
gure seme-alabei
soka xabalkara
esku artetik kentzen
ibiltzen baikara!

11) Bi hilabetez edo
iraun die grinak (biz.)
azkar itzuli baietz
hari, kordel finak
grisak, moreak, beltzak,
gorriak, urdinak...
Sokak soka, finean,
une ahaztezinak
betirako baitira
umetan eginak.

12) Eskerrik asko, Mertxe,
bihotzez, goratik (biz.)
autobusean haurrak
goxatzeagatik
eskolara eraman,
ekartzeagatik
eta helduoi ere
bide beretatik
haurtzarora itzultzen
laguntzeagatik.

EGUZKITZA DBH4

Alarde matxista XXI. mendean normala da?

1522. urtean, Irunen guda garrantzitsu bat egon zen, San Martzial guda. Guda hori irabazi genuen eta hori ospatzeko alarde bat egin zen Irunen eta Hondarribian. Geroztik ohitura bilakatu da, eta urtero ekainaren 30ean San Martzial festak ospatzen dira.

Baina dena ez da uste bezain polita; gatazka bat dago duela hainbat urte. Bi alarde sortu ziren; Alarde tradizionala edo betikoa eta alarde mistoa edo berritua. Zer gertatzen da honekin? Alarde tradizionalean emakume bat atera daiteke konpainia bakoitzeko eta nire ustez hori nahiko matxista da. Beste alardean berriz, nahi duena atera daiteke, bai gizonak ,eta baita emakumeak ere.

Nik alarde mistoa defendatzen dut eta uste dut logikoena dela. Pentsatzen dut festak denentzat direla eta aukera eman behar zaiola nahi duenak ateratzeko. Zoritxarrez, hori ez da posible.
Nik ez dut ulertzen nola jendeak ez duen alarde mistoa defendatzen eta uste dut lotsagarria dela kontran dagoen jende gehiena emakumeak eta neskak izatea. Ez dira konturatzen oso matxistak direla, eta gainera, emakumeen eskubideei uko egiten ari direla. Nire iritziz, emakumeak dira okerrenak.

Normalean mundu guztiak esaten duena da hau tradizio bat dela eta errespetatu behar dela, baina ez dira konturatzen tradizio asko ez direla errespetatzen, hau da, aspaldian egiten ziren gauzak orain ia gehienak ez direla egiten. Adibidez, aspaldian emakumeak ez zuten bozkatzeko eskubiderik, baina tradizioa aldatu denez, orain bozkatzeko aukera dute. Honekin zer esan nahi dut? Ba alardean gertatzen dena azken finean gauza bera dela, baina jendea ez da konturatzen edo ez du konturatu nahi.

Hau dena esanda, tradizioak azkenean aldatu eta berritu egiten dira. Bestela beti berbera izango litzateke.
Egia esatekotan, uste dut bakoitzak pentsatzen duena errespetatu behar dela, baina goazen burua erabiltzera eta logika erabiltzera, zentzua duten gauzak egiteko, burua horretarako dugu eta.

Nahia Garcia 4B

ARTEA HEZKUNTZAN

Artea oso garrantzitsua da pertsonentzat, normalean kreatibitatea garatzeko modu bat da, baita beste pertsonekin komunikatzeko modua ere. Ideiak adierazteko modu bat izan daiteke baita emozioak ere, munduaren ikuspuntu desberdinak adierazteko eta beste gauza askotarako balio du arteak. Hau arte mota desberdinekin egin daiteke: pintura, musika, dantza, hizkuntza, eskultura, literatura, zinema, argazkilaritza...

Artea edozein adineko pertsonentzat oso garrantzitsua bada, askoz gehiago nerabe eta umeentzat. Horregatik, pentsatzen dut hezkuntza artistikoa oso inportantea dela eskola guztietan, umeak txikiak direnetik denbora asko pasatzen dutelako han barruan. Nire ustez, laguntzen du umeen eta nerabeen irudimena eta kreatibitatea garatzen. Artean oinarrituta kideak hobeto ezagutu ditzakegu, gure emozioak eta gure ikuspuntuak adierazi ditzakegu. Gainera, harreman sozialak sustatzeko modu bat izan daiteke, adierazpen modu bat da gure eguneroko bizitzan dauden erabakiak hartzeko laguntzen gaitu eta problemak konpontzen ere bai. Bestalde, estres edo tentsio handiko momentuetan erlaxatzeko balio du.

Nire iritziz, arteak hezkuntzan onura asko ematen ditu ,eta horregatik, uste dut existitu beharko lukeela eskola guztietan, ume eta nerabe bakoitzak aukeratu dezala gehien gustatzen zaiona eta hoberen moldatu daitekeena berarentzat. Beraz, pentsatzen dut haur hezkuntzako eskoletan jaio behar direla lehenengo artistak eta hazi nerabe artistak bezala institutuan.

Adrián González 4A

Bidasoaldeko Ikaskuntzako Bitartekaritza Zerbitzuak aholkularitza eskaintzen du Plaiaundi institututik

Argazkian: Santiago Rodrigo Plaiaundiko zuzendaria, Virginia Garmendia eta Kepa Altube

Ikaskuntzako Bitartekaritza Eusko Jaurlaritzako zerbitzu publikoa eta doakoa da. Bere helburua 16 urte eta gehiagoko pertsonen artean prestakuntza sustatzea da, haien egoera soziolaborala edozein izanda ere. Virginia Garmendia Bidasoako orientatzaileak eta Kepa Altube Ikaslaneko arduradunak zerbitzuaren xehetasunak azaldu dituzte.

Zertan datza Ikas Bidasoaldea Bitartekaritza zerbitzua?
Kepa: Bitartekaritza zerbitzua Bidasoan ipini genuen eta Ikaslanetik eskaintzen zen zerbitzua ikusita horretarako beharra ikusi genuen. Bigarren mailako titulurik gabeko jende asko dagoela ikusita eta bitartekaritza zerbitzuaren bitartez formazioarekin loturiko informazioa eskaintzen da, jendeak titulua eskuratu eta lan merkatura sartzeko aukera gehiago izan ditzan. Ideia horrekin hasi ginen lanean.

Pandemiaren ostean kontsulten kopuruak gora egin duela nabaritu duzue?
Virginia: Bai, pandemiaren ondorioz jende asko langabezian gelditu da eta gure aholkularitza eta orientazio zerbitzuaren bitartez ikastaro berriak ezagutu eta formazio zabaltzeko aukera ematen diegu.

Zein profiletako jendea hurbildu ohi da zuengana?
Kepa: Profil desberdinetako jendearen kontsultak jaso ohi ditugu. Langabezian dagoen jende kopurua %12 ingurukoa da, hau da, 9.000 pertsona inguru eta horietatik 3.800 pertsona inguruk ez dute bigarren mailako titulaziorik. Hortaz gain, Irunera bizitzera etorri berri diren pertsonen kontsulta asko jasotzen ditugu. Langabeziaz gainera, lanean dauden pertsonek ere haien formazioa zabaltzea, curriculuma handitzea eta lanpostu hobe bat lortzeko aukerak bilatzen dituzte. Plaiaundi eta Bidasoa zentroetan 200 ikastarotik gora eskaini ohi dira urte osoan zehar, beraz, bi hilabetean behin 30 ikastaro baino gehiago ematen dira. Arlo anitzetako ikastaroak eskaintzen dira, hau da, administrazio, informatika, osasungintza, gizarteratzea, teknologia, elektrizitatea, mekanika, mantenduarekin, ... loturikoak. Beraz, formazioa hobetzeko aukera paregabeak daude.

Kontsultetan galderak asko errepikatzen dira?
Virginia: Ez, kontsulta oso ezberdinak dira. Batzuk Lanbide Heziketara sartzeko bide ezberdinekin loturiko galderak egiten dituzte, besteek, aldiz, ikastaroak, ikastaro batean izena emateko beharrezkoak diren tramiteen inguruan zalantzak dituzte.

Kepa: Azken finean, kasuak oso anitzak dira, hortaz, galderak ere mota askotakoak dira, beraz, Virginiaren laguntza paregabea da zalantza horiek argitzeko.

Azken urteetan Lanbide Heziketaren eskariak gora egin du modu nabarmenean?
Kepa: Bai, ikasle aldetik Ikaslan Gipuzkoak, adibidez, 10.400 ikasle inguru dauzka eta iaz baino 300 edo 400 ikasle gehiago. Azken finean, Lanbide Heziketa irtenbide moduan planteatuta dago jada eta sartzeko frogak edo Erdi-mailako Zikloetatik sartzeko aukerak erraztu dira. Gainera, behin Lanbide Heziketa amaituta, unibertsitatera sarrera zuzena daukate eta jendeak aukera moduan ikusten du Lanbide Heziketa.

Sarbide aukera anitzek Lanbide Heziketa erakargarriago egiten dute?
Kepa: Bai, hortaz gain, Lanbide Heziketak harreman zuzena dauka alde laboralarekin, bai praktikak egiten direlako edo duala eskaintzen delako. Arlo teorikoa ere garapen profesionalera eta gizarteratzera bideratuta dago, Lanbide Heziketa erakargarri eginez.

Bidasoa eskualdean Lanbide Heziketarekin loturiko eskaintza oso zabala da, ezta?
Kepa: Guztira eskualdean 25 ziklo eskaintzen dira, 10 familia ezberdinetako ordezkariak direnak. Ziklo horietatik 9 erdi-mailakoak dira eta 16, berriz, goi mailakoak. Hortaz, urtero guztira 700 pertsonentzako lekua dago eskaintza honen barnean.

Jendeak formazioarekin loturiko aholkularitza zerbitzua jasotzea eskertzen du?
Virginia: Bai, asko gainera. Mahai gainean aukera ezberdinak aurkezten dizkiozunean eta ezagutzen ez zituzten bide berriak deskubritzen dizkiezunean kontsultetatik oso pozik ateratzen direla ikusten dugu.

Zer egin behar da hitzordu bat lotzeko?
Virginia: Hitzorduak telefonoz eskatzeko aukera dugu, hau da, 655 80 64 98 telefono-zenbakira deituta. Ikas Bidasoaldeko telefonoa da hori, beraz, zuzenean hitzordua hartzeko aukera izango dute bertan.

Kepa: Gainera, www.ikaslangipuzkoa.eus webgunean orientazio eta bitartekaritza zerbitzua daukagu. Webgune horren bitartez, zerbitzuan non eta zein ordutegirekin eskaintzen den kontsultatu daiteke eta kontsultak egiteko modu ezberdinak azaltzen dira: aurrez aurrekoak, modu telematikoa, telefonoz, ... Era berean, bide hau erabiliz erabiltzaileek egindako ekarpen guztiak jasotzen ditugu. Guk zuzenean titulua emateko aukerarik ez dugun arren, eskura dugun erraztasun guztiak eskaini nahi dizkiegu.

Sare sozialak informazioa zabaltzeko bereziki lagungarriak izango dira zuentzat?
Virginia: Twitterrekin hasi ginen @IkasBidasoaldea kontuarekin eta orain dela hilabete batzuk Facebook-en kontua ireki genuen Bitartekaritza Bidasoaldea izenarekin. Sare sozialetan, batez ere, ikastaro eskaintzaren berri ematen dugu, ikastaroen gaia, data, ordutegia eta sarbide aukerak azalduz.

Kepa: Gogoratu beharrekoa da, Ikas Bidasoaldeako zerbitzua konkretuki Plaiaundin ematen bada ere, eskualdeko eskaintza guztiaren informazioa bertan zentralizaturik dagoela. Hortaz gain, Lanbide zein elkarte ezberdinekin elkarlanean aritzeko prest gaude.

Nola begiratzen duzue etorkizunera?

Kepa: Biztanleriari guk ikastaro guztien eskaintza mantentzen dugula gogoratu nahi diogu. Aurrez aurreko ikastaroak mantentzen ditugu, hortaz, jendea etxetik atera eta haien formazioa zabaltzera gonbidatu nahi ditugu.

LANNAHI: Euskara dohainik ikasteko aukera

Irungo Udal Euskaltegiak abian jarriko du LANNAHI programaren hirugarren txanda. Langabezia egoeran dauden pertsonei begirakoa da programa eta, haren bitartez, euskara debalde ikasteko aukera ematen zaie. Hirugarren txandako ikastaroa apirilaren 12an hasi eta ekainaren 22an bukatuko da.

Ikastaroak, printzipioz, aurrez aurreko eta urrutiko jarduna uztartuz eskainiko dira. Ikasle eta langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko beharrezkoak diren prebentzio neurriak hartuko dira, eta izena emandako ikasle kopuruaren arabera, beharrezkoak diren egokitzapenak egingo dira.

LANNAHI programan izena eman nahi dutenek izen-ematea internet bidez egin beharko dute, martxoaren 1etik 11ra, SAC24h (www.irun.org/sac) zerbitzuaren bitartez Irun Txartela edo beste ziurtagiri digital batzuk erabiliz (NAN elektronikoa, IZENPE txartela..), eta hori ezinezkoa bazaie, SACeko autozerbitzu terminaletan (San Martzial kalea, 2) egin ahalko dute matrikula egunero 8:00etatik 22:00etara.

Eskaria internetez egiteaz gain, mailaketa proba egin behar da, Udal Euskaltegian ari direnen edo aurreko ikastaroan aritu direnen kasuan izan ezik. Mailaketa proba egiteko 943 505273 telefonora deitu behar da hitzordua eskatzeko.

Ez pentsatu gehiago eta egin ezazu izen-ematea!

LANNAHI
DOAKO EUSKARA IKASTAROAK
LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONENTZAT

Donostiako Giza Eskubideen 18. Zinemaldia

Gazte Epaimahaiak aukeratzen du Nazioarteko Film Laburren Lehiaketaren irabazlea.

Egunak: 2021ko apirilaren 23tik 30era.

Tokia: Victoria Eugenia Antzokian.

Gazte Epaimahaiko kide izan nahi duzu?

Horretarako 18 eta 30 urte artean izan beharko dituzu eta EHU, Deustu eta Mondragon Unibertsitateko ECTS lortzeko aukera iza

2021eko Mikromezu lehiaketa

Leloa: "Hurbileko merkataritza zure auzoan erostearen abantailak".

Epea: martxoak 6.

Norentzat: 10-17 urte gazteentzat.

- 1. kategoria: Lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleak eta DBHko 1. mailakoak. Saria: 2 tablet Samsung Galaxy, hizkuntza bakoitzeko bana.
- 2. kategoria: DBHko 2, 3 eta 4. mailetako ikasleak. Saria: 2 ordenagailu eramangarri, hizkuntza bakoitzeko bana.

Mezuak euskara edo gazteleraz bidal ditzazkezu. Proposatutako gaiarekiko 400 karaktereko gogoeta pentsatu eta parte hartu!

Zure mezuak bidali:
Posta elektronikoaren bidez omic@irun.org
WhatsApp bidez 688 756 251

Antolatzailea: KIUB. Kontsumo Bulegoa - Irungo Udala

IGazteren Buletin Elektronikoa

Enplegu, ikastaro, mugikortasun, hezkuntza, aisialdi eta boluntariotzari buruzko informazio gaurkotu guztia jaso nahi duzu? Izena eman ezazu iGazteren buletinera! Interesatzen zaizun informazio guztia zure posta elektronikoan jasoko duzu!

Buletinean izena emateko esteka iGazteren webgunean topatuko duzu. Hortaz gain, iGazteren webgunean buletinaren azkeneko alea kontsultatzeko aukera izango duzu beti.

Irungo IGazte

CBA Kultur Gunea - San Juan plaza, z/g

www.irun.org/igazte - igazte@irun.org - 943 505 444 - Whatsapp: 607 771 173

Aisialdiko begiraleak behar ditugu!

Udako oporrak hasteko geroz eta gutxiago gelditzen dela ikusita, hainbat elkarte udalekuetan lan egiteko interesa duten hezitzaile eta zuzendarien bila hasi dira.

Horrela, mota askotako eskaintzak daude eta eskaintza horien guztien inguruko informazioa iGazte zerbitzuaren webgunean aurkituko duzu: www.irun.org/igazte. Hauek dira orain arte zerbitzuak udalekuetako lan eskaintzarekin loturik bildutako lan eskaintzak:

– Zuzendari lan-poltsa. Bidali CV-a txikiplanes@gmail.com helbidera.

– Itsasondoko Udaleko Hezitzaile - Begirale lan poltsa. Eskaera bidaltzeko epea martxoaren 4ean amaitzen da).

– Begirale eta sukaldariak behar dira. Curriculumak hezkuntza@uema.eus helbide elektronikora bidali beharko dituzte martxoak 31a baino lehen.



Martxoak

4

Komunikazio jardunaldia

Zer: "Burdinbidea Irunen" izenarekin parte-hartze irekiko trenbideari buruzko jardunaldia antolatuko da.

Non: Ficobako auditoriumean.

Ordua: Goizeko 9:00etatik aurrera.

Sarrera: Doako sarrera aldez aurretik izena emanez gero. Auditoriumaren edukiera 96 pertsonetara mugatuta egongo da.

Izen-ematea: jornadaffccirun@hotmail.com helbide elektronikora idatziz egin beharko da.

Oharra: Irungo Herritarren Foroa eta Irungo Udalaren arten antolatutako jarduera.

6

Dantza garaikidea

Zer: Dantzaz konpainiak hiru koreografiek osatutako programa bat aurkeztuko du, mota guztietako publikoentzako aproposa izango den emanaldi batean.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 7,50 euro.

Sarrerak: Interneten bidez, Irungo Turismo bulegoan edo leihatilan ikuskizunaren egun berean.

7

Zinema

Zer: Icíar Bollaínek zuzendutako "La boda de rosa" pelikularen emankizuna.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 5,50 euro.

Sarrerak: Interneten bidez, Irungo Turismo bulegoan edo leihatilan ikuskizunaren egun berean.

11

Zure abenturaren bila

Zer: "Myanmar un país desconocido" abenturazko film laburraren emankizuna.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30etan.

Sarrera: Doakoa, aretoko lekuak bete arte.

Iraupena: 45 minutu.

Hizkuntza: Gaztelaniaz.

13

Antzerkia

Zer: "Oymyakon, habitación 101 un film escénico" lana antzeztuko du Khea Ziater konpainiak.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00tan.

Prezioa: 7,50 euro.

Sarrerak: Interneten bidez, Irungo Turismo bulegoan edo leihatilan ikuskizunaren egun berean.

Iraupena: 70 minutu.

Hizkuntza: Gaztelaniaz.

14

Ganbera Zikloa Ricardo Requejo 2021

Zer: Iker Martin saxofonista eta Belén Sierra pianojolearen kontzertua, perkusioan Jaime Atristain eta Juan Carlos Moreiro saxofonista langu izango dituztela.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 4,50 euro.

Sarrerak: Interneten bidez, Irungo Turismo bulegoan edo leihatilan ikuskizunaren egun berean.

Denbora-pasen emaitzak



4	2	1	9	3	8	5	6	7
7	8	3	1	5	6	2	4	9
5	9	6	4	2	7	1	3	8
3	4	9	8	6	1	7	2	5
8	5	7	3	9	2	6	1	4
6	1	2	5	7	4	9	8	3
1	7	8	6	4	5	3	9	2
2	3	4	7	1	9	8	5	6
9	6	5	2	8	3	4	7	1

Jaunartzeak 2021

ERREPORTAJEA+ ALBUMA

155€ -tik aurrera

Argazkilariak
Letxunborro hiribidea 100,2.
20305 Irun (gipuzkoa)
943 840 113 - 647 930 484
hola@fotogoverbodas.com
www.fotogoverbodas.com

FOTOGRAFIA ESTUDIO GO VER™